

EREINTZAKO TXISTULARIAK URTEETAN ZEAR

XABIER

APIRILLAK amasei, goizeko amarterdiak, Ereintzako txistulariak errian zear dihoaz kontsejupe aldera, eguargorako ordubetetan izango dan erestaldiaren (kontzertoa) mezua biribilketa alai batekin emanaz. Donostiako «Txuri-Urdin» eta Bilboko ertsiak, gaur arratsaldean San Mamesen jokatu dan partidua gogoratu nai dute.

Urbildu gera ordubata aldean bere jardunaldia entzuteko asmoz eta bertan betiko lagunak bildu gera; irurogei bat geinez, baina denak talde onen jarraitzalle zintzoak. Or dago Asun Salaberria, noizean bein bere irrintzia txistuarekin batera entzuten delarik, or dira baita ere Larre, Galdos, S. Iglesias, P. Iglesias, Mendiburu, Olkoz, Oliveri, Izagirre eta abar. Gaurko saioa, egunari dagokionez errikoa izandu da, soka dantza, zurrumurrur, Zirt-zart, eta Botxo J. I. Ansorenak moldatutako ertsiak eta bukatzeko Butronen Pello Josepe eta Guridiren Inguruko Dantza. Perkusionistak ainbat lan izan duen txistu saio eder au, txalo ugariekin amaitu da.

Talde onek Erriko Udalaren laguntzarekin, illean bein, goiz ertsiak eta kontsejupeko kontzertua ematen du, beren saioetan bertako eta erbesteko klasiko eta gaurko musikalarien ertsiak erabiltzen dituztelarik; lagungarri bezela tronpeta, tronpa, biolina, auspo soiñua eta perkusiozko instrumentuak erabiliz. Gazte auen lana ez degu bear bezela eskertzen, jende geiagok joan bear luke bere ekinaldietara, aurrerantzean ere gure txalo beroen laguntzaz, Lizaso, Lizardi, Errazkin, Goñi eta Jauregi txistulari ospetsu aien jarraitzalle izanik, Errenterriaren izena goi maillan ipini dezaten.

Merezi duela uste det, luze xamar joango bada ere, talde oni buruz xeetasun batzuk jakitea, orretarako Itziar Busselo eta Josetxo Oliveri-rena jo degu.

Denbora	Txistu 1.º	Txistu 2.º	Silbote	Atabal
1960-62	J. M.º Oliveri	J. Mirasolain	J. M.º Izagirre	S. Bengoetxea
1962-69	J. M.º Oliveri	J. M.º Izagirre	O. Izagirre	S. Bengoetxea
1969-70	Zazpi lagunek osatutako taldea			
	Iñaki Zapirain	J. Goyenetxea	Santi Urruzola	M. Etxebeste
	Iñaki Garbizu	J. Oliveri		Javier Gil
1970-72	I. Zapirain	J. Oliveri	J. Bagues	J. Gil
1972-73	J. Oliveri	S. Urruzola	J. Bagues	J. Gil
1973-76	J. Oliveri	J. I. Koka	J. Bagues	S. Urruzola
1976-78	I. Mitxelena	J. M. Gallastegi	M. Ugartemendia	S. Galdos
1979-80	J. Oliveri	J. I. Koka	J. Bagues	S. Urruzola
1981	I. Busselo	Josu Izagirre	X. Izagirre	J. I. Usabiaga

Evaristo Goñi (G.B.) eta Olegario Izagirreren zuzendaritzapean, talde onek sari auk eskuratu zituen.

1981-ko Maiatzean, Donostiako «Isidro Ansorena» sariketan 3.º saria B maillan.

1981-ko Irailean, Salvatierran 1.º saria eta Azaroan 2.º saria.

1982-ko Maiatzean «Donostiako Isidro Ansorena» sariketan, 1.º saria B. maillan.

1982 Taldean aldaketak gertatzen dira, Jose M.º Garmendia eta Jose M.º Dorronsoro, txistu 2.º eta silbotea, Josu eta Xabierren orde. Sari auk irabazi zituzten.

1985-ko Maiatzean, Isidro Ansorena Sariketan 1.º saria B maillan.

1985-eko Maiatzean, sariketa berean 2.º saria A maillan.

1985 Abendu aldean taldea anditu egiten da. Partaideak auk izanik. Itziar Busselo eta Xabier Izagirre txistu 1.º, Josu Izagirre, Jon Zaldúa eta Jose M.º Dorronsoro txistu 2.º, Etorre Barbeito eta Pello Ibarguren silboteak, eta J. I. Usabiaga eta Sebas Galdos perkusionistak.

1986 Arantza Arzak, Jose M.º Dorronsoren ordeko ipintzen da.

1987 Urretxun izandako sariketan 2.º saria lortzen du.

1988 Oraingo taldea auk osatzen dute.

Itziar Busselo-Aitor Arozena txistu 1.º, Josu Izagirre-Jon Zaldúa-Juan Andrés Higuero txistu bigarrenak, Etorre Barbeito-Pello Ibarguren silboteak eta J. I. Usabiaga-Josu Laskara perkusionistak.

Orain arte azaldu diran izenak Ereintzako talde ofizialeko partaideenak izan dira, bañan Ereintzako Akademiatik sortutako beste taldeak ere, dantza taldeen txistulari lanetan eta beste ekintzetan ibilliak dira, benetan pozgarria errenteriarrentzat, goi maillan ipintzen bait dute bere erria eta etorkizun ona txistuarentzat.

Itziar Busselo, oraingo zuzendariak, bere txistu ikasketak Ereintzako Akademiari asi zituan, Josetxo Oliveri, Xabier Pikabea eta Periko Lizardi maisu izanik, gero Donostiako Kontserbatorioan goi maillako ikasketak egiñ ondoren, gaur Errenteria Musikalen txistuko irakaslea da.

Ereintzako txistulari taldeak askotan Andra Mari korallarekin parte artu dute ekintza ezberdinetan, baita Musikasten ere sortu zan ezkerotzik.

Asieran esaten nuenez oraingo eresaldietan perkusionistak oso garrantzitsuak dira, bai ertsi euskaldunak eta erbestekoak perkusio bidez egindako soinu bereziz jazten bait dituzte txistulari auk. Perkusio sail orretan zer instrumento erabiltzen dituzten jakiteko J. I. Usabiagarena jo dugu, eta ara

berak garbi azaldu txistuari lagun egiten dioten instrumentuak zeintzuk diran.

Berak Onela dio, «Oso zaila da Ereintzako Txistulari taldearekin erabilitako perkusio instrumentuen definizio bat ematea, azken finean edozein gorputz-objeto, sar daitekelako perkusio atal zabalean. Honela, berez perkutitzen, ez diren zenbait instrumentu sartzen dizkigute perkusionistoi: turutak, silbatoak, sirenak e.a. Dena dela, segidan, guk erabiltzen ditugun instrumentuen zerrenda doa, normalean perkusio instrumentuak sailkatzen diren eran».

PARTXE INSTRUMENTUAK

- a) Soinu indeterminatua dutenak:
Atabala, «caja», danborra, danborila, partxedun pandereta, bongoak, bonbeta...
- b) Soinu determinatua dutenak:
Tinbala...

EGURREZKO INSTRUMENTUAK

- a) Soinu indeterminatua dutenak:
Castañuela, tradizionalak, keardun castañuelak, mahai castañuelak, guiroa, wood-bloc, karraka, klabeak, latigoa, txinar caja, caña rociera, banbuak...
- b) Doinu determinatukoak:
Xilofonoa, xilofono-marinba.

METALEZKO INSTRUMENTUAK

- a) Soinu indeterminatua dutenak:
krotaloak, cynbaloak, cynbalo esekiak (plato suspendido), joareak, kaskabelak, trianguloa, cabasa...
- b) soinu determinatua dutenak:
kanpagnoloa.

BESTE INSTRUMENTUAK

Adarrak, kontxak, partxe gabeko pandereta, zaldi matela, botilla raspadora moduan eta silbatoak...

Hauek izan dira oraindano erabili ditugun perkusio instrumentu geienak, gerora begira erabili ditzakegunak, hauek izan daitezke; txalaparta, tobera, marimba, lira, vibrafonoa, musikitarra, salterioa, xafla metalikoa, sirenak, tom-tom, temples bloks, kortinasilbato deslizante, timbaletak, tablillak, Afrika eta turkiar danborrak. Ona emen J. I. Usabiaga goi mailako perkusionistak instrumento zerrenda, txistuarekin ain desberdiñak izanik elkar ibiltzen diranean atsegiñak ordea. Gazte auen asmoak, maizago beren saioak egitea da eta sortzen ari diran txistularien bultzada bat ematek; guk, beren saioetara urbiduaz eta txalo beroez auek goxatuaz, lagun dezaigun bere lanean aurrera jarraitzen.

Zatoz bada irakurle goi maillako soiñulari auek illero ematen duten erestaldira, ziur nago ez zaizula damutuko. Ordu-rarte bada erreteriar musikalzalea.

Erreterian 1989-ko Maiatzean

